

PASAIA (Donibane) / Olentzero eskutitz lehiaketa antolatu dute Abenduaren 22ra bitarte egongo da lanak Udal Liburutegian aurkezteko aukera

A. Maya

Itsasmendi Udal Liburutegiak Olentzerori ongietorria emateko eskutitz lehiaketa antolatu du. Lanak liburutegian bertan aurkeztu beharko dira hilaren 22an baino lehen, eta, 17:00etatik 19:45era eraman beharko dira lanak.

Bi taldetan egon dira banatuak parte-hartzaileak: lehen mailan 9 eta 10 urtekoak, eta bigarren mailan 11 eta 12koak. Euskaraz idatziak izan beharko dira eskutitzak, eta 15 lerro inguruko luzera izan beharko dute. Horrez gain, eskutitza kartazal itxi batean aurkeztu beharko da, non egilearen datuak orri batean sartuko diren (izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa).

Talde bakoitzeko, irabazle bat egongo da, eta saria abenduaren 24an jasoko dute. Parte-hartzaile guztien artean sari bat zozkatuko da. Bi eskutitz sarituen artean bat aukeratuko da, abenduaren 24an, Olentzeroren ongietorrian irakurria izan dadin.

Bestalde, lan guztiak Itsasmendi Udal Liburutegian irakurgai egongo dira urtarrila osoan zehar.